

## AZTERKETAK EUSKARAZ!

***Euskal Herriko Ikastolen Elkartek, Seaskako ordezkariekin eta Azterketak Euskaraz! kolektiboarekin batera, guraso, langile eta euskaltzaleak deitzen ditu Iparraldeko ikasleek azterketak euskaraz egiteko duten eskubidearen alde martxoaren 4ean, ostiralez, ikastola guztietan egingo diren elkarretaratzeetan parte hartzera.***

- Baxoari dagokionez, gure ikasleek oraindik ez dakite zein hizkuntzatan egingo dituzten Batxilergoko Berezitasuneko bi probak eta Ahozko Handia. Abenduaren 14ko zirkularrak dio «proba batzuk» euskaraz aurkeztu ahalko direla. Baina, momentuz, ezezkoan daude, eta kezkatuta gaude Frantziako hezkuntza instituzioen jarrerarekin. Zirkular hori, aurrerapauso bat izan ordez, atzerakada bat izateko arriskuan da. Ezin dugu 30 urte atzera egin.

2019an, Euskararen Erakunde Publikoarekin (EEP) eta Frantziako Hezkuntza agintariekin hitzarmen bat sinatu genuen ikasleek azterketa hauek euskaraz egin ahal izateko. Hezkuntza agintariak, ordea, akordio hori berrinterpretatu egin nahi dute eta azterketak euskaraz egiteko aukera mugatu. Hitzarmena bete egin behar da, eta ikasle guztiak aukera izan behar dute Ahozko Handia euskaraz egiteko.

Brebetari dagokionez, berriz, ez dugu onartuko beronen antolaketarako arazo teknikoen aitzakiarik. Bost hilabete barru izango dira probak, eta nahikoa denbora badago horien zuzenketa antolatzeko.

Guretzako ez dago dudarik, azterketak euskaraz egiteko eskubidea dute gure ikasleek, eta Brebetan eta Baxoan ez badugu aurrerapausorik, beren eskubideak errespetatuak izan arte borrokatzeko prest gara.

- 2022ko Brebeta eta Baxoaren inguruan Frantziako Hezkuntza agintariaren erantzunaren zain gauden bitartean, agintari akademikoak zigorren bidez erantzuten ari dira.

Iragan ekainean, hainbat irakasleek bat egin zuten ikasleek azterketak euskaraz pasatzeko duten eskubidearekin, eta frantsesez egindako Brebetako zientzietako azterketak zuzentzeari uko egin zioten. Bordeleko Akademiari jakinarazi zioten erabakiaren berri, zerbitzua antola zezan.

Baina legezko eskakizun horri, desobedientzia zibileko ekintza horri, sei hilabete berantago, azterketen zuzendariak, Bordeleko Akademiako Errektoretzaren izenean jarduten duenak, zigor ekonomikoekin erantzun dio: "Zuzenketa ez aurkeztea justifikatu gabeko huts egite bat" dela esan, eta irakasle horiei soldata atxikipen bat egin die.

Gure elkartasuna adierazi nahi diegu irakasle hauei, eta Bordeleko Errektorearen jarrerarekin dugun kezka sakona partekatu nahi dugu.

- Era berean, Iparraldeko ikastoletako guraso, langile eta ikasleei Euskal Herriko ikastola guztien elkartasun eta babes osoa adierazi nahi diegu, eta erakutsi Frantziako hezkuntza agintariak ez direla ari Seaskaren aurka soilik, ikastola mugimendu guztiaren aurka baizik.
- Halaber, erakundeei, alderdi politikoei eta gainerako eragileei ere dei egiten diegu. Hau ez delako, arestian esan bezala, Seaskako komunitatearen aurkako eraso bakarrik; hau, euskarari, euskal kulturari, euskaraz bizi nahi duen herri bati egiten zaion eraso da. Ikastola guztiak bat eginda gaude eraso honi aurre egiteko, baina erakunde, alderdi eta gainerako eragileek ere badute erantzukizuna.
- Amaitzeko, euskal gizarteari ere dei egiten diogu, Seaskako komunitateak herritarren hatsa izan dezan, Frantziako Hezkuntza agintariak ohar daitezen ez dugula onartuko gure ikasleei azterketak euskaraz egiteko eskubidea ukatzea eta prest gaudela borrokatzeko gure hizkuntza eskubideak errespetatuak izan arte.

Horregatik, dei egiten dugu Iparraldeko ikasleek azterketak euskaraz egiteko duten eskubideren alde ikastoletan egingo diren elkarretaratzeetan parte hartzera. Azterketak euskaraz!

**Brebeta:** Derrigorrezko ikastaldiaren amaieran, kolegioko hirugarren mailaren amaieran, ikasleek gainditu beharreko proben multzoa da brebeta edo *brevet (Diplôme national du brevet DNB)*. Lehen, Historia, Matematika eta Frantsesaren probak egin behar zituzten. Galderak frantsesez baziren ere, euskaraz erantzuteko aukera zuten, eta irakasle euskaldunek zuzentzen zituzten. 2017ko erreforman, zientzia gaiak gehitu zituzten: Biologia, Fisika eta Teknologia. Frantsesez egin behar dira horiek.

**Baxoa:** Lizeoko ikasketen amaieran, goi mailako eta unibertsitateko ikasketak egin ahal izateko gainditu beharreko proben multzoa da Baxoa edo *Baccalauréat*. 1990eko hamarralditik, Historiako gaiak euskaraz erantzun ahal zituzten ikasleek, eta, 2012tik, baita Matematikakoak ere. 2020an erreforma egin zuen Hezkuntza ministerioak: gehiena kontrol jarraian oinarritzen da, eta, beraz, Seaskako ikasleek euskaraz egin dezakete. Idatzizko probak dituzte gainera: Frantsesa, Filosofia, eta bakoitzak hautatutako bi espezialitate. Azkenik Ahozko Handia deitua daukate, hautatutako espezialitateen ingurukoa.

## AZTERKETAK EUSKARAZ!

***Euskal Herriko Ikastolen Elkartea, junto con representantes de Seaska y el colectivo Azterketak Euskaraz!, convoca a padres, trabajadores y euskaltzales a participar en las concentraciones que se celebrarán el viernes, 4 de marzo, en todas las ikastolas en defensa del derecho de los alumnos de Iparralde a realizar las pruebas del 'Brevet' y del 'Baccalauréat' en euskera.***

- En cuanto a las pruebas del *Baccalauréat*, nuestros alumnos todavía no saben en qué idioma van a realizar las dos pruebas de Especialidad y el Gran Oral. La circular del 14 de diciembre dice que "algunas pruebas" podrán presentarse en euskera. Pero, de momento, las instituciones educativas francesas han negado esa opción, y estamos preocupados por su actitud, ya que se corre el riesgo de que esta circular, lejos de ser un avance, suponga un retroceso, y no podemos retroceder 30 años.

En 2019 firmamos un convenio con Euskararen Erakunde Publikoa (Oficina Pública del Euskera) y las autoridades educativas francesas para que los alumnos pudieran realizar estos exámenes en euskera. Las autoridades educativas, sin embargo, quieren reinterpretar este acuerdo y limitar la posibilidad de que los exámenes se realicen en nuestra lengua. El acuerdo debe cumplirse y todos los alumnos deben poder realizar las pruebas en euskera.

En cuanto al *Brevet*, no admitiremos excusas de problemas técnicos para su organización. Las pruebas tendrán lugar dentro de cinco meses y hay tiempo suficiente para organizar la corrección de dichas pruebas.

Para nosotros no hay duda, nuestros alumnos tienen derecho a realizar los exámenes en euskera, y si no obtenemos avances en el cumplimiento del mismo, estamos dispuestos a luchar hasta que los derechos de nuestros alumnos sean respetados.

- Mientras esperamos la respuesta de las autoridades educativas francesas sobre el *Brevet* y el *Baccalauréat* del 2022, las autoridades académicas están respondiendo con sanciones.

El pasado junio, varios profesores se adhirieron a la reivindicación del derecho de los alumnos a pasar los exámenes en euskera y se negaron a corregir los exámenes de ciencias de las pruebas del *Brevet* en francés. La decisión fue comunicada a tiempo a la Academia de Burdeos para que organizara el servicio.

Pero a esa exigencia legal, a ese acto de desobediencia civil, seis meses más tarde, el director de exámenes, que actúa en nombre del rectorado de la Academia de Burdeos, responde con sanciones económicas: "No presentarse a las correcciones es una falta injustificada", ha dicho, y ha retenido parte del salario a esos profesores.

Queremos mostrar nuestra solidaridad con estos profesores y compartir nuestra profunda preocupación por la actitud del Rectorado de Burdeos.

- También queremos mostrar a los padres, trabajadores y alumnos de las ikastolas de Iparralde la solidaridad y el apoyo de todas las ikastolas de Euskal Herria y advertir que



las autoridades educativas francesas no están actuando sólo contra Seaska, sino contra todo el movimiento de ikastolas.

- En este sentido, hacemos un llamamiento a las instituciones, a los partidos políticos y al resto de agentes. Porque esto no es sólo un ataque a la comunidad de Seaska, sino también a la lengua, a la cultura vasca, a un país que quiere vivir en euskera. Todas las ikastolas estamos unidas para hacer frente a este ataque, pero las instituciones, partidos y demás agentes también tienen su responsabilidad.

- Para finalizar, hacemos, también, un llamamiento a la sociedad vasca para que la comunidad de Seaska sienta el aliento de la ciudadanía, para que las autoridades educativas francesas se den cuenta de que no vamos a aceptar que se niegue a nuestros alumnos el derecho a realizar los exámenes en euskera y que estamos dispuestos a luchar hasta que nuestros derechos lingüísticos sean respetados.

Por ello, hacemos un llamamiento a participar en las concentraciones que se celebrarán en las ikastolas a favor del derecho de los alumnos de Iparralde a realizar los exámenes en euskera. Azterketak euskaraz!

**Brevet:** El *brevet (Diplôme national du brevet DNB)* es el conjunto de pruebas a superar por los alumnos al final de la etapa escolar obligatoria (tras finalizar el tercer curso del Colegio). Históricamente tenían que realizar pruebas de Historia, Matemáticas y Francés. Aunque las preguntas eran en francés, los alumnos tenían la posibilidad de contestarlas en euskera y eran corregidas por profesores euskaldunes. En la reforma de 2017, se incorporaron los temas científicos: Biología, Física y Tecnología. Estas últimas en francés.

**Bachillerato:** el Bachillerato o *Baccalauréat* es el conjunto de pruebas a superar por los alumnos al final de los estudios de Liceo, para poder cursar estudios superiores y universitarios. Desde la década de 1990, los alumnos podían responder en euskera a temas de Historia y, desde 2012, también a los de Matemáticas. En 2020 el Ministerio de Educación hizo una reforma: la mayor parte se basa en un control continuado, por lo que los alumnos de Seaska pueden hacerlo en euskera. Además, cuentan con pruebas escritas de Francés, Filosofía y dos especialidades seleccionadas. Finalmente, tienen la denominada Gran Oral, en torno a las especialidades seleccionadas.